

Hibernazioan sartzea eragiten duen zirkuitu neuronalak aurkitu dute

Hibernazioan sartzea eragiten duen zirkuitu neuronalak identifikatu dute karraskarietan, *Nature* aldizkarian argitaratu dituzten bi ikerketatan.

Animalia batzuek beren gorputzeko tenperatura jaisteko eta metabolismoak apaltzeko gaitasuna dute, elikagai gutxi duten garaietan, adibidez. Ikertzaileek hibernazioarekin lotura zuzena duen neurona-multzo bat identifikatu dute saguen hipotalamoan. Ikusi dute neurona horiek aktibatzean gorputz-tenperatura eta metabolismoak jaitsi, eta hibernazioaren antzeko egoeran sartzen direla. Esperimentuetan saguak egoera horretan 48 orduz egotera iritsi ziren, eta ez zuten albo-ondoririk atzeman, ez portaeran, ez ehun eta organoetan ere.



Esperimentua arratoiekin errepikatu zuten. Saguek ez bezala, arratoiek ez dute hibernatzen. Hala ere, neurona horiek aktibatutakoan, arratoiak ere hibernazioaren antzeko egoera hipometabolikoan sartu ziren.

Ikertzaileen ustez, litekeena da berez hibernatzen ez duten ugaztunetan ere zirkuitu neuronal horiek egotea, eta, beraz, bide horretatik hibernazioa induzitzeko aukera egotea. ●

Kaloriak murrizteak ez du beti eragiten bizialdia luzatu eta osasuntsuago egotea

Aspaldi frogatu zuten [dieten kaloriak murriztea eraginkorra dela bizialdia luzatzeko](#) eta adinarekin lotutako gaixotasunak atzeratzeko, baina [Current Biology aldizkarian argitaratutako ikerketa batek](#) agerian jarri du kasu guztietan ez dela lortzen bizialdia luzatu eta, aldi berean, osasuntsuago egotea. Norbere ezaugarri genetikoek baldintzatzen dute, antza.



ARG.: Congerdesign/Pixabay.

50.000 euli aztertuta, ikusi dute dieta hipokalorikoa jateak ez dituela, ezinbestean, bi aldagaiak hobetzen: % 97ri bizialdia luzatu edo osasuna hobetu zaie, baina % 50k soilik izan dute hobekuntza bietan; beste % 13 osasuntsuago eta indartsuago zeuden, baina lehenago hil dira; eta % 5i bizialdia luzatu bai, baina osasun okerragoaz pasa zuten denbora gehiago. Emaitez iradokitzen dute hainbat faktore genetikok modu independentean modulatzeko di-tuztela ezaugarriok.

Gizakietan ere antzeko zerbait espero dute, eta azpimarratu dute gutxiago jatea onuragarria izanik ere, kontuan hartu behar dela pertsona bakoitza desberdina dela eta norbere ondare genetikoak eragin handia izan dezakeela dieta hipokalorikoaz osasuna berreskuratzeko gaitasun horretan. ●